

00. GURE IDEIA

Enpresa: Abalife

Julen, Ekain, Manex eta Jon gara, Durango BHIko ikasleak, eta gaurkoan Administrazioa eta Kudeaketaren Oinarria ikasgaietan sortu dugun enpresa baten berri gatoz, Abalife izenekoa.

Enpresa sortzeko ideia Brainstorming baten bidez bideratu genuen, hau da, ideia zaparrada baten ondorioz, eta azkenean hainbat ideia konbinatuz eratu genuen Abalife. Enpresaren izenez den bezainbatean, taldeko partaideok Abadiñokoak gara (Aba-) eta bizitzeko modu berri bat eskaintzen dugu (-life), beraz, bi ezaugarri hauek konbinatuz, Abalife eratu genuen. Esan legez, Abalife-en bizitzeko modu berri bat eskaintzen dugu, garraiagarriak izango diren etxeak zehazki. Gainera, gaur egun gero eta zailagoa bihurtzen ari da zure etxe propio erostea, beraz, Abalife-en bidez, oso ekonomikoak izango diren etxeak eskainiko ditugu jarraian azalduko ditugun beste abantail asko izateaz gain. Besterik gabe Canvas Metodoko 9 jorratutako atalak aurkeztuko dizkizuegu.

Abalife... Zure etorkizuna eraikitzen!

